

7/2019 FORU AGINDUA, otsailaren 12koa, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak emana, departamentu horren 2019-2021eko Hizkuntza Plana onesten duena.

Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak (euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan) xedea du Nafarroako bi hizkuntza berezkoen, euskararen eta gaztelaniaren, existentzia onartu eta haren errealitateari erantzutea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean onartzen den gisan.

Foru Dekretu horren 6. artikulua, Hizkuntza plangintza jorratzen baitu, xedatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu bakoitzak bere planak prestatuko dituela 3. artikuluan aurreikusitako helburuak erdiesteko, eta finkatzen ditu plan horretako gutxieneko edukiak. Orobat, lehen xedapen iragankorrak ezartzen du plan horiek urtebeteko epean prestatuko direla indarra hartzen duenetik aitzina.

5. artikulua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua koordinazio organo izendatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artean; haiei aholkua eman beharko die eta haiekin elkarlanean aritu, Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan eta plangintzan ezarritako ildo estrategikoak gauzatzeko. Ildo horretatik, Euskarabidea eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua lanean aritu dira departamentu horren Hizkuntza Plana ontzen.

Planak aipamena egiten dio departamentuaren egiturari, lege esparrua deskribatzen du, eta datu demografiko eta soziolinguistikoak eskaintzen. Abiaturuko egoeraren hasierako diagnostikoa egiten du (euskararen halako ezagutza bat ezarrita daukaten lanpostuen kopurua), langileen euskararen ezagutzari buruz eskura dauden datuak agertzen eta departamentuaren komunikazio eta baliabideen egoera aztertzen.

Gainera, zehazten da zein helburutara jo behar den ezarritako epean, hala nola nahitaezkotasunaren ezarpena, langileen euskarazko prestakuntza, herritarrak euskaraz artatzeko neurriak, ele biko informazio idatzia, hizkuntza paisaia (errotulazioa eta elementu fisikoak) eta zerbitzu lizitatuei arreta emateko irizpideak. Planaren garapenaren antolaketaren egitura finkatzen da, honako hauek osatua, koordinaziorako eta garapenerako entitate gisa: departamentuko lantalde bat, departamentuen arteko batzorde bat eta Euskarabideko Gobernu Kontseilua. Azkenik, ebaluazioa eta jarraipena egiteko bideak ezartzen dira.

Proposamenarekin bat, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 129/2015 Foru Dekretuaren bidez esleitu dizkidaten eskudantziak erabiliz.

#### AGINTZEN DUT

1.º Onestea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren 2019-2021 urteetarako Hizkuntza Plana, biak barne, horrela nahi baitu azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak (euskararen erabilera arautzen

duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan), foru agindu honen eranskinean ikus daitekeen gisan.

2.º Plan hau Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzea, orok jakin dezan.

3.º Foru agindu hau eta haren eranskina igortzea Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusira, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusira, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzara, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutura, Nafarroako Berdintasunerako Institutura eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hemeretziko otsailaren hamabian.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO  
DEPARTAMENTUKO KONTSEILARIA

Ana Ollo Hualde

.